

ZER BERRI SORALUZEKO BASERRITARREK LEHORTE HANDIA JASAN DUTE /
PP-K AH-EN "JARRERAREN" BERRI EMATEKO ESKATU DIO ALKATEARI

piipilean

Soraluzeko Hamabostekaria 74. alea 2003ko irailaren 12a



Musikoterapia

lechio bat zabalik



Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean

GOL

GOL industriak S.A.
Sagar Erreka, 19 45 PK
Telefona: 34 943 75 21 00
Faxa: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE

Iragarlearen txokoan: Etxehun Etxebarri

Mendiola industrialdea 14-5 / Telefona 943751891 Faxa 943752458

*“ Teknologikoki aurreratzea
da etorkizuneko erronka ”*

Noiz sortu zan Etxehun lantegixa?

Aurretik Etxebarri lantegixa zan baina aldaketa batzuk izan ziran eta 1975. urtian Etxehun sortu zeben Unamuno anaiak.

Zenbat langilek diharduzue lanian momentu honetan?
12 Lagun.

Zer produkzio mota da zuena?

Gehixenbat makina espezialak diseinatu eta fabrikatzen ditugu. Makina erreminta alorra da guria.



Nungo bezeruak izaten dituzue?

Eskaerarik gehixenak eta onenak Euskal Herrikuak izaten ditugu baina Espainiar estatuan eta Europara be saltzen ditugu. Estatu Batuetara be bai bat edo beste.

Momentu honetan zela dago makina erremintaren merkatua?

Azken urtian bajatu egin da baina ez dao ez goiko puntan eta ez behia joten be.

Etorkizunerako ze erronka?

Beti berritzen eta teknologian aurreratzen saiatu bihar dogu. Horixe da erronka.



Oporren alde iluna

UBANE MADERA

Oporretatik bueltan, gehienok ekartzen ditugun oroitza bikenek gain, beste askoren etxean huts handia izaten da nagusi. Hutsa eta samina.

Aurten, 851 etxetan gertatu da hori. Oporretatik bueltatu ez direnen etxeak dira. Eta, kopuru izugarri horri, hil barik zauritu direnen kopurua gehitu behar zaio: beste 976 lagun; horietatik 478 lesio larriekin: tetraplegiko, paralitiko, itsu...

Urtero da berdina. Eta urtero errepikatzen da, zifra potoloagoe-kin, gainera. Askotan, oporretara joan barik geratzen direnen beldurra horixe izaten da: ea ez zaien ezer gertatzen.

Eta, gainera, gauza ez da hor bukatzen. Istripuek segi egiten dute, urte osoan.

Eta ez du merezi. Horrela bizia galtzerik edo zaurituta geratzerik ez du merezi.

Buelta eman behar zaio egoera horri. Zelan? (esango duzue). Bada, errazena litzateke auto motelagoak egitea, legeak ezartzen duen 120 Km/orduko abiadura mugarekin. Istripu gutxiago egoteaz gain, autoak merkeagoak izango liriateke, baita aseguruak ere. Guztiok irabaziko genuke. Baina hori ez da gertatuko. Auto gutxiago salduko lituzkete, eta jakinekoa da interes ekonomikoak nagusi direla munduan.

Beraz, gure esku dago zerbait egitea. Norberak erabakiko du zer egin, askeak eta nagusiak gara-eta. Baina, istripuek, jeneralean norbere gain eragiteaz gain, parean tokatu den auto-gidarien edo bidaiarien gain ere eragiten dute. Hortaz, askatasun hori apur bat alboratu, eta ardura gehiagorekin jokatu beharko genuke guztiok. Zentzuarekin. Ez dago besterik. Nahikoa lagun-ezagun ditugu istripuan hil edo zauritu direnak.

Eta ez du merezi.

Telegrapak

Kaixo irakurle. Stop. zelan?. Stop. jairik jai ibiltziaz aspertuta seguru asko. Stop. ala depre-siñuak jota udan gastatutako euro pilak laga zaittuztetelako?. Stop. lur jota ez dozulako neska edo mutil lagunik topau?. Stop. desesperatuta 10 kilo irabazi ditzuzulako?. Stop. lasai. Stop. badago konponbide bat. Stop. lasai, ez da lana!. Stop. eta ez, ez da txateatzia!. Stop. musika da!. Stop. musikoterapia!. Stop. ez dago psikopata arriskutsua bat izan biharrik terapia hau probatzeko!. Stop. ezta alper hutsa be!. Stop. ez da derrigorrezkoa behintzat. Stop. baina zure barruan ahotsak entzuten badittuzu.... Stop. tipo "ei egin zeozer!, ei igel bat eginda nao!. Stop. ez egin dudarik!. Stop. komeni jatzu. Stop. jarri musika pixkat zure bizitzan. Stop. jo gitarra, edo txirula, edo filarmonika zarra!. Stop. orgasmoaren antzeko zeozer da!. Stop. eta irakurri prentsa!. Stop. ona da gauzetaz enteratzeko!. Stop. gizurra edo egixa dan... Stop. ondo begiratu!. Stop. batzuk ahalegintzen... Stop. muxutxubek...



Argitaratzailea:

Pii-pilean Kultura Elkarte
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.
Telefonoa 943 75 13 04
comunidades.kzgunea.net/PiiPileanKulturaElkarte/EU
piliilean@euskalnet.net

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Gurutze Ariznabarreta, Enara Agirre, Eguzkine Aldazabal, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Jon Oregi, Oier Oregi, Eduardo Pombar, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.

Publizitatea: Ane Yabar (943 75 13 04)

Logotioa: Jon Gabilondo (943751304 tel.)

Banaketa: Pii-pilean **ekoizpena:** 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop. **Azala:** Pablo Galarraga

Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pii Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZKO
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA



Erreportaia

"Musikak sortzen laguntzen digu, eta zerbait sortzen dugunean gure autoestima igo egiten da, gustora sentitzen gara. Komunikatzen laguntzen du eta komunikazio motak zabaltzen. Hitzekin azaldu ezin ditugun sentimenduak azal ditzakegu. Adibidez, bost minutu egon zintezke danborra jo eta jo, zure amorruguztia atera arte, edo beste batekin zerbait sortzen."

Zorion agurrak



Arantxa Arizaga
Irailaren 7a
ZORIONAK!!
Soraluzeko dantzari-
rik politenandako!
Etxekuen partetik.



Joseba Gil
Abuztuaren 29a
ZORIONAK!!
Sindika moduan bizi zara
baina zure alaitasunarekin
dana betetzen dozu.
Zure Gurasuak



Itsaso Ramirez de Albiz
1998-09-29
ZORIONAK!!
Etxeko poxpolinonda-
ko! Etxekuak.



Arrate de Albiz Lizarraga
1962-09-01
ZORIONAK!!
Etxeko poxpolinonda-
ko! Etxekuen partetik.



Egoitz Unamuno
1979-09-16
ZORIONAK!
Jarraitu beti hain jator
eta langile izaten.
Maitte zaittugu!
Pil-pileanekuen partez.



Aitor Madrid
Irailaren 15a
ZORIONAK!
Gure informatikako adituari
bihotz ondolik! Ez gaizki
ulertu! guapo!
Pil-pileanekuen partez.



Billy Yanguas
2.000-09-28
ZORIONAK!!
Potxolo, asko maitte
zaittugu! asko asko!
Etxekuen partetik



Naiara Kortabarría
1990-09-16
ZORIONAK!!
Ondo pasau eta txintxoia
izan. Zure guraso eta anaia-
ren partetik.

Agenda

Gutunak

Alkateari, euskara zaintzeaz
toponimoetan.

Iturburu, haranburu,
ibarburu, mendiburu...Elosuko
Agarrezabal baserrian bazeuden soroak
artoa eta garia landatzekoak, etxeen gai-
nean, eta esaten zotsen
etxaburu handia eta etxaburu
txikia...gainean zeudelako. Horregatik
ibai ertzean dagoen pasabidea
Soraluzen, polikiroldegiko ibai aldetik

igarotzen dena, iturburu deitzea mintzai-
ra kolpatzea da. Bertan
bazegoen fabrika bat "Euscalduna" joko-
na izena, hori bai egokiagoa
izango litzatekeela, edo, gogoratu nahi
ez bada arma fabrika hura,
ibai ertzean pasabidea deitu, baina ez,
inoiz ez, iturburu. Hori goian
zegoen, iturriaren buruan eta ez ibai ert-
zean.

Roman Garmendia
N.A.: 15356909

Merkatu Txikia



LAN ESKAINTZAK

*Ingeles, alemaniera, frantsez eta ita-
liera irakasleak behar dira . CIM-HIZ-
KUNTZAK, Araba etorbidea 4, Arrasate.

***Tabernarako eta sukaldarako** lagun
bana behar da. 943765099

***Taberna baterako** zerbitzaria behar da
Bergaran. 943764808

***Sukaldaria eta zerbitzaria** behar dira
Arrasateko Gambrinus-en. 667602769

***VORARLBERG-AUSTRIA** zerbitzariak
abendutik martxora lan egiteko. 18-30
Urte bitartean. 943 372605

BESTELAKOAK



***Txakurkumeak ematen dira.** Mastin
eta arteko nahastea. 3Txakurkume ditu.
Interesik izan ezkeru, deitu 943751115
era. Soraluze (Agarburu baserria).



Belarrak
Loradenda
eta belardenda

Erosketak etxera
eramango dizkizugu

Telf. 943 75 30 11

LAUDIN
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g tf: 943 752 150
138 Postakutxa Faxa: 943 752 118

SORALUZE

Zer irizten dotsazu?

Uztailean eta abuztuan zehar ikaragarritzko beroak egin ditu Euskal Herrian. Gehienak opor garaian harrapatu ditu beroak baina hala eta guztiz ere, askorendako jasangaitza izan da tamainako beroa izatea. Klean jakin nahi izan dugu soraluzetarrok zela jasan duten.

Udako berua jasangaitza pentzau jatzu? zela egin dotsazu aurre?



Iñaki Gamazo
38 urte
Ofizialista
Bero ikaragarria egin dau, baina ez naiz keju oporretan egin dabelako. Gainera beruari aurka egitxia ez da horren gaitza izan, bainutxo bat hartu eta kitto.



Nerea Mendia
18 Urte
Ikaslia
Ni dexente kezkatu naiz egin daben beruagaittik, izan be nere ustetan kutxadurian erruz sortzen ari dan klima aldaketiak eraginda egin dau aurtengo udan holako berua.



Blanki Torrano
48 urte
Ofizialista
Neri berua gustatzen jata eta beraz, oso gustora egon naiz, ez nago kexatzeko moduan. Pixka bat freskatzeko uretan egotia onena eta etxia itzaletan eukitzia. Gainera ez da berdiña berua oporretan egonda edo lanian egonda jasatia.



Jose Cortes
56 urte
Igeltserua
Bai, exajeratua izan da, larregizko berua egin dau. Aurre egittia ez da horren zaila. Nahikua da hondartzara edo igerilekura juatia eta hantxe frexkatu bat hartzia.



Ascen Unda
70 urte
Monjia
Egixa da bai, jasangaitza izan da aurtengo udakua. Ahal dan bezela egin dotsagu aurre, frexkagarrixak hartuz, kerizpetan eta haizeleketan ibilialditxuak eginez...



Gaizka Azkarate
12 urte
Ikaslia
Orixon eta Kordoban pasatu dittu oporrek eta leku bixetan bero oso haundixak egin dittu. Beruari aurre egitteko kalian kamiseta barik ibili izan naiz eta etxian galtzonzilotan.

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarateak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Tlfonoa: 943 75 17 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

GAZTELUPE
taberna
tel: 943 75 20 81

PPren eskaera AHren aurka

Asteazkenean egunkari ezagun batek kaleratu zuen berriaren arabera, PPko Javier Nuñez zinegotziak Askatasun Haizeak plataformak azken Udal Batzarrean hartutako jarreraren berri emateko eskatu dio alkateari. PPko zinegotziak bere aldetik, berak prentsa ohar bat kaleratu duela adierazi digu, non alkateari AHkek azkenengo Udal Batzarrean ETAre azken atentatuak gaitzetzeko PPk aurkeztutako mozioaren aurkako botua eman izana (EAJ, EA eta PSEEk aldekoa eman zuten) Auzitegi Nagusiko Fiskaltzari jakina-

razteko eskatzen dion alkateari. Hala egin ezean PPk berak emango omen dio horren berri. Alkateak bere aldetik, eskaera horren inolako berririk ez duela (ostegun goizean) eta PPko zinegotziari argibideak eskatzeko asmoa duela jakinarazi dio Pil-pileani.

Bestalde Udal Gobernuaren azken bilkuran, espetsxetako zuzendaritzari euskal presoak Euskal Herrira hurbildu ditzan eskatzeko idatzi bat bidaltzea eta Errenteriako PSEEn egoitzaren aurkako eraso gaitzestea erabaki zuten aho batez.

HHiko matrikula zabalik dago

Soraluzeko Helduen Hezkuntza Iraunkorra ikastokiak 2003-04 ikasurterako matrikula zabaldu du irailean. Aurten; Bigarren Hezkuntzako Gra-

duatua, Unibertsitateko sarrera, Ingles eta euskeraren hastapenak, Kultura Orokorra, Etorkinendako ikastaroak eta alfabetizazioa izango dira aukeran.

Lan berriak hasita eta hastear



Bidegorriaren argiztapena egiteko, argi indarraren instalazioa egiten dihardute.



Sazia gaineko aparkamentuak laster izango dira erabilgarri.

Trenbidea. Soraluze eta Osintxu arteko Bidegorriaren egokitze lanak direla eta, trenbidea itxita izango da irailean eta urrian.

Aparkamentuak Sazian. Izartu planaren barruan Olako zubitik Ezozi bidera egingo den errepidea dela eta, Estazio kaleko aparkalekuak kendu aurretik, Sazian 40 aparkaleku berri egingo dira.

Elgetarako bidea. Aldundiak Sagar Errekatik Elgetarako hasierako bide zatia konponduko duela jakinarazi du.



Autopistako lanak Elgetarako bidearen hasierako zatia hondatu dute.

Asier eta Iñaki gogoratu



Aste honetan, 2001 Eko irailaren 8an Avilako espetsxera bidean hil ziren Asier Heriz eta Iñaki Saezen heriotzaren bigarren urtemuga dela gogorarazteko hainbat ekitaldi antolatu dira herrian. Astelehenean, Estatu Espainiarrak mantentzen duen sakabanaketa politika "hiltzailea" salatu eta euskal presoak euskal herriratzeko eskatuz elkarretaratze bat egin zen plazan. Igan-derako, oroimen ekitaldi bat antolatu dute senide eta lagunek mendi gainean. Hamarretan, mendi gainerako igor-erari ekingo diote eta euren omenez landatutako zuhaitzaren ondoan; dantza, bertso, poesia eta loreak eskeiniko dizkiete.

Berriarako laguntza- ren %70a jaso da

Soraluzeko Berriaren Aldeko Herri Batzordeak jakitera eman duenez, orainartean saldutako akzio, bonola-guntza eta materialari esker dagoeneko 8.500 euro batu dira Berriaren alde. Datozen hilabeteetan, hasieran jarritako 12.000 euroko kopurura iristen ahaleginduko dira, horretarako as- tebururo kalean jarriko den postuarekin akzio (50 eta 300 eurokoak) eta material salmenta bultzatuko da (Pil-pileanera deituta ere bai). Berriako 10 harpidetzen zozketaren zenbakia ber- ritz irailaren 26an emango da jakitera.

FER.

S.A. Industriak

Eskulanetarako tresnak

Industrialdea, 17 - 20590 Soraluze
Tlfonoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es

JABIER ALBERDI

HARATEGI
ARTISAU ERARA

ESPEZIALIZATUA

KALITATEKO EUSKO LABELA DUTEN
PRODUKTUETAN.



Errebal kalea 24
Tfnoa 943 75 19 32

48 Gradu baino gehiagoko temperaturak neurtu dira herrian eta 11 hildako izan dira uztailaren erdialdetik.



Animaliak izan dira lehortearen kalteak gehien jasan dituztenak. Osuma Gain baserriko behiak bedar ondua eta lastoa jan dute larreko bedarraren faltan. Agarreko Felixek tomate uzta gehiena galdu du baina esperantza du piperrak hobeto batuko diren.

Honezkero jakinaren gainean gaude aurtengo udan egin duen beroa ohikoa baino askoz handiagoa izan dela. Uda ostean herrian jaso ditugun testigantza eta datuek, komunikabideek uda guztian zehar behin eta berriz azpimarratu duten informazioa baieztatu besterik ez dute egin. Uda honetako bero bolada ez da txantxetako kontua izan.

Baserritarrentzat galbidea

Pentsatzekoa den moduan aurtengo uda lehorrak nekazaritza eta abeltzantza alorretan eragin ditu kalte ekonomikorik handienak.

Osuma baserrikoek 50 ganadu buru baino gehiago dituzte eta udako lehorteak eragindako larrerik ezak negurako ganbaran gordeta zeukaten belar eta lastoa udan erabiltzera behartu ditu. Etxean nahiz zelaian eman diete jaten negurakotik eta orain, berriz ere, lasto eta belar gehiago ekarri beharko dute kanpotik. Pedro aitona bere bizitzan ezagutu dituen lehorteak gogorrenetakotzat dauka aurtengoa, beroenetzat ziur. Lehorte handia izan arren, etxean ez zaie urik agortu eta pareko iturrian ere ez, "estrainatzeko modukua dok hainbeste denboran euririk egin barik". Hori bai, beste ur iturri batzuk agortu direla ere jakinarazi digu. Bero izugarri horrek baserritarrak "bateko hamar lan" egitera behartu dituela gogorarazi digu azkenik.

Agarreko Felixek tomate eta piper sail handiak ipintzen ditu urtero baina aurtengo lehorteak hankaz gora utzi

ditu bere itxaropenak. Lehorraren baina "batez be beruaren eraginez" tomateak beste urte batzuetan ematen dutenaren erdirik ere ez omen dute eman eta dagoeneko utzita dauzka. Piperrak ere urte arrunt batean baino askoz gutxiago ematen ari omen dira, nahiz eta azken egunetako euriak pixkat mejoratu dituen. Abuztuko egunik beroenetako baten 48° ra heldu omen zen termometroa. "Bero zatar horrek" egin omen du kalte gehien, "sikuak baino gehixao", gauez ez zuelako freskatzen. Fruta arbola gazte mordoia ere igartu omen zaio eta "intxaurrak be lurrera datoz".

Ur mozketarik ez herrian

Lehorte handia izan arren uda osoan ez da herrian ur mozketarik egin beharrik izan. Kontsumo urriak eta Urkuluko urtegiaren betetze maila ona dela eta, ez da horrelako neurrik hartu beharrik izan.

11 Hildako udan

Hildakoen kopurua oso handia izan da aurtengo udan. Uztailaren erdialdetik iraileko bigarren astera bitartean 11 soraluzetar hil dira herrian.

Deba Ibaian ur gutxi

Uda osoan zehar ur emari txikia eraman du Deba ibaiak. Ola auzoa baino harantzago normalean urak estaltzen dituen haitz ugari izan da begibistan. Itxura guztien arabera, poliki poliki azken egunotan egiten ari den euriarekin gauzak bere etorriko dira.



Lur eremurik lehorrenetan zuhaitzak ere igartu dira. Ezozi partean ezezik Txurruka auzoan ere zuhaitz asko igartu da, pinu zuriak ere bai.



Irailekin batera etxe eta lantegietako kutxadura areagotu da, horren adierazle da presa ondoko bitz pila tamalgarria.



Domentxek berak asmatutako tresna; "bixeragirgilduna".

Musikoterapia. Lehio bat zabalik musikarekin.

Dometx Uzinek musikarekin lotuta darama bere bizitza osoa. Musika ikasketak egin zituen Salamancan eta musika munduarekin lotutako lanetan dihardu buru belarri. Laster disko bat kaleratuko du "Karidadeko Benta" taldearekin Aberastu, diruz ez da aberastu baina bai sentimenduz eta sormen indarrez.

Musikoterapeuta irakasle izateko praktikak egiten ibili da Bilboko hospitale baten eta musikoterapiaren nondik norakoak ikasi ditu. Denok eskura daukagun terapia da musikarena eta probatu arte ez omen da jakiten zelako dibertigarria eta lasaigarria izan daitekeen musikatresna bat hartu jotzea.

Nola hasi zinen musikarekin? Berezko grina behar al da?

Hasieran gurasoek entzuten duten musika entzuten duzu. Nik gogoan dut mahaian kubiertoekin perkusioa jotzen nuela eta amamak errieta egiten zidan beti. Baina musika jotzen Ines Marirekin hasi nintzen eta gero txistuan.

Nik uste dut ez dela berezko abilitaderik behar. Berezkoa dutenak azkarrago joango dira, baina musika denon eskura dago.

Garai hartatik oroitzen gogoak gordeko dituzu, ez?

Bai noski. Ines Marirekin Santa Cecilia eguneko kalejira asko gustatzen zitzaidan, kanpaia, melodika... Baina esan didatenaren arabera txikitzen asko lotsatzen nintzen. Gurasoek kontatu didate behin etxeko balkoian jo nuela, ez nintzen kalejiran irtetzen ausartu eta Gabolatzetik pasatu zirenean nik balkoian jo nuen.

Txistuan ibili nintzeneko oroitzenak ere oso onak dira, hilean behin egiten genuen kalejira, eta konkursoetan ere ibili ginen. Eta ni han txiki-txikia, besteak ni baino urte batzuk nagusiagoak ziren.

Zer da zuretzat musika? Nola bizi duzu?

Musika egunero bizi dut, egunero



Domentx musika tresnak inguruan dituela eta gitarra eskutan, bere "armarik onena".

"Musika ez da gauza itxi bat. Ez dago pentagrametan, ez dago partituretan. Kanpoan dago. Ahaztu solfeoak eta dibertitu".

entzuten dut eta ezin dut musika gabeko egunik imaginatu. Niretzat musika lehenengo eta behin dibertitzeko zerbait da eta orain, agian musikoterapiaren eraginez, gero eta gehiago konturatzen naiz komunikatzeko modu bat dela. Beste komunikazio modu bat. Musika ez da gauza itxi bat, ez dago pentagrametan, ez dago partituretan. Musika kanpoan dago, gurekin dago. Beldurra galdu behar zaio musikari, abestu, espresatu. Oso erraz iristen zaigun zerbait da, irudi bat edota eszena bat, musikaz lagunduta askoz intentsuagoa da. Nik jende guztiari esan nahi nioke musikari gure bizitzan

MUSIKOTERAPIA

Musikoterapiak soinua-gizakia-soinua konplexua ikertzen du, musika, soinua eta mugimenduaren bidez komunikazio kanalak ireki ahal izateko. Gizakiok hitzez komunikatzen garela diogun arren benetan hitzak komunikazioaren zati txiki bat besterik ez dira. Ikerketen arabera honela komunikatzen gara:

- Komunikazioaren %93 analogikoa da, hau da, gorputzaren bidez (%50) edo gure ahotsaren kalitatearen bidez(%43) burutzen dugu.
- %7 a solik da digitala, hau da, hitzen bidez sortzen duguna.

Musikoterapiak komunikazio analogikoa erabiltzen duenez, komunikazio askoz sakonago bat lantzen du.



MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren,10
Telefonoa 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORALUZE

ELIZPE



h o r t z k l i n i k a

Elizburu, 3 behea
9 4 3 7 5 2 5 6 7
20590 Soraluze



sartzen utzi behar diogula, merezi du. Denok egin dezakegu, ahaztu solfeoak eta dibertitu.

Beraz musikak asko laguntzen du? Baina nola?

Musikak sortzen laguntzen digu, eta zerbait sortzen dugunean gure autoestima igo egiten da, gustora sentitzen gara. Komunikatzen laguntzen du eta komunikazio motak zabaltzen. Hitzekin azaldu ezin ditugun sentimenduak azal ditzakegu. Adibidez, bost minutu egon zintezke danborra jo eta jo, zure amorrugutzia atera arte, edo beste batekin zerbait sortzen. Azken finean hori da, sortzea; zuk zure diskurtsoa, marrazkiak... espresatzea, jokuak egin daitezke, edo nahi duzuna.

Musikoterapiak orokorrean arlo asko ikutzen ditu. Adibidez, minez eta ohean egotera behartua dagoen pertsona batek musika tresna bat jo dezake eta oso desberdina da minez ohean geldituta edo beste pertsona batekin musikaren bidez min hori adierazi ahal izatea. Ahotsa ere erabil dezakegu, hau da daukagun instrumenturik onena, baina askotan hitzak motz gelditzen dira eta orduan soinuen bidez espresa gaitezke, barre egin, dibertidu... Askotan ez gara konturatzen horretaz; musika espresio bide bat dela. Askotan jendea moztu egiten da komunikazio bide hau erabiltzerako orduan: nik ez dut solfeorik ikasi, ez dakit erritmoa eramatea... baina hori baino askoz gehiago da. Jendeak behar du musika. Musika barruraino heltzen zaigun zerbait da, gainera entzumena

beti martxan daukagu, ezin duzu kendu edo itzali. Bere munduan oso aislatuta dagoen jendearengana hel daiteke musika, adibidez koman daudenak, autistak edo psikosi oso gogorrek jasaten dituztenak. Denongana iristen da, denok barruan daukagun ume horrengana. Bote-re hori du, eta askotan imaginatu ere egiten ez ditugun sentimenduak mugiarazten dizkigu.

Orduan zehazki zer da musikoterapia? Zein da musikoterapeuta baten lana?

Musikoterapiaren helburua musikaren bidez komunikazioa zabaltzea da, beraz musikoterapeuta baten lana aditzea da, ez hitzez esaten dena bakarrik, orokorrean komunikatu nahi dena baizik. Azken finean isiltasuna bera ere espresioa da. Ezin duzu espresatzen ari diren hori ona/txarra, zatarra/polita edo antzeko baloreekin neurtu.

Zu sesio batzutan ere egon zara. Zer da horrelako sesio batean egiten dena?

Metodoak bezala, sesioak ere desberdinak dira: taldeka zein banaka egin daitezke, atal desberdinetan banatu edo gauza bera landu sesio guztian zehar. Teknika konkretu bat landu dezakezu pazientearen arabera, baina garrantzitsuena "espresio libre" deitu dezakegun momentua da. Pazienteari espazioa eta aukera ematen zaio instrumentu, ahots edo gorputzaren bidez libreki espresatzeko. Hau da musikoterapiaren funtsa.

Bukatzeko. Badakigu benta bateraino ere iritsi zarela, kontaiguz zu ze benta mota den hori.

Ba benta horrek Karidadeko Benta du izena eta musika etnikoak jotzen ditugu, ezberdinak: Marruekoekoa, Iranekoa, Tango bat... Melodia euskaldunak ere egiten dituzte, edo letra euskaldunak hartu eta kanpoko melodia bati ipini.

Nik hiru kontzertu eman ditut be-raiekin, Bilboko jaietan, Olabarrian eta Lesakan. Hiru kontzertuak oso desberdinak izan dira, baina publikoaren alde-tik harrera ona jaso dugu.

MOTXIAN

Hitzik gabeko musika maitasunaren soinua. Pertsona batekin zaudenean, gertu.

Desafinatuta nago...bai, batzutan gertatzen da. Dena dela guk sortu ditugun eskeman dira. Estimulantea ere izan daiteke.

Musika tresna bat gorputza. Bera da daukagun instrumenturik onena, beti aldean daramaguna eta hobekien kontrola dezakeguna.

Jotzeko leku bat mendia
Musiko bat bat Uff... asko esan ditzaket, esan dezaket Mozart edo Ruper, Malcom Escarpa. Bai azken biak again.

Abesti bat Orain beste herrialde bateko musika etortzen zait burura, beste kultura bat. Indiako musika adibidez, indiako raga bat

RK zulo Oso ideia ona. Bizitza honetan ezin gara aspertu.

Mendata taberna



Berezitasunak:
Txipiroiak, Barazki
Menestra, Gixauak...
Asteburuan plater
konbinatuak
Enkarguak etxerako
(bazkariak eta afariak)
Kalebarren, 5
Tfnoa 943 75 13 87



Kiru Muntaiak S.L.

Blas Elizburu Kortabarria

Sukalde, enpotratu eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Amillaga, 5 20750 Bergara
Tfnoa 943 75 13 12
Eskuko tfnoa 615 70 27 65

JAI FLASHA



Balsen jeitsiera ikusgarrixa izan zan. Ez horrenbeste hurrengo astietako balsa jeitsiera. Batzuk portatu dira baina....



Herri olimpiadetan dana ondo jua zan hankarteko pepinuarrekin arazuak sortu arte. Arrautza jokua be salbaje xamarra!



Pablok eta Txilarrek San Roke Txiki egunari urteroko ikutua emon zotsen. Tabernetako DJ eta erregiak izan ziran!



Badira kuadrila batzuk beste batzuk baino ikutu haundixagua daukenak. Zorionez gauerdirako sakabanatu ziran!



San Martzialgo mus txapelketara jende mordoxka batu zan. Ideia haundirik barik, askok suertia probatu nahi izan zeber!



San Martzialera jua zan gaztetxuak majo gozatu eben modu guztietako jokuekin. Joku batzuk amaitezinak izan ziran!

Etzozi Larrañaga

“Etorkinen jarioari egoki erantzutea da aurtengo erronka nagusia”

Ikasturteari hasiera emanaz, Plarentxi herri ikastetxean zuzendaritza talde berria osatu dute: Mariasun Juaristi ikasketa buru, Mari Karmen Larrañaga idazkari eta Etzozi Larrañaga zuzendari. Gaurkoan, zuzendariarekin aritu gara ikastetxearen inguruko gora beheretaz.

Umeenganako maitasunak bultzatuta Magisteritzako ikasketak egin ostean, 1977 urtean hasi zen Etzozi irakasle lanetan. Geroztik, gustora dihardu hezkuntza munduan eta aurtengoan zuzendari gisa dagozkion ardurei adarretatik heltzeko prest.

Ze erronka nagusi ditu ikastetxeak ikasturte hontarako?

Alde batetik etorkinen jarioari aurre egitea. Hau da, ume hauen integrazioa lortzea. Eta ez da lan xamurra kontuan izanik badirela hogeit bat ume eta aurtengoan beste bost berri matrikulatu direla. Egoera honi erantzuteko PTak (Pedagogo Terapeutak) lan berezia egiten dute ume etorkinen integrazioa bultzatu asmoz.

Bestalde, ikastetxearen berritze lanei dagokionez, obretaz arduratzen den enpresak sinatua du otsailaren erdialderako bukatua egongo dela ikastetxeko obra eta jantokia ere prest egongo dela urtarrilerako. Baina Zeletako aldi baterako sahiesbideak eta jolaslekuaren egoerak goiko ikastetxerako lekualdatzea baldintzatu dezakete.

Nola eragiten dute berritze lanei ikastetxearen egunerokotasunean?

Egoera oso eskasa da. Haur hezkuntza eta lehen hezkuntza bi eraikinetan banatuak daude honek suposatzen duen guztiarekin. Haur hezkuntza ikastola zaharrean ematen da, bertan gelen beharra hain da nabaria, ze bilera batzuk pasiloetan egin behar izaten dira. Lehen hezkuntza berriz Amezua lantegia zenaren eraikinean ematen da. Kasu honetan espazioaren falta nabariagoa



Mariasun Juaristi, Mari Karmen Larrañaga eta Etzozi Larrañaga.

da (honen adibide elkarrizketa komunean egitea) ez baitago jolaslekurik, ez soinketarako gunerik, ez liburutegirik, ez informatika gelarik ezta laborategirik ere. Honetaz gain gela gehiago behar ditugu laguntza gela moduan erabiltzeko. Eta arazo honi nolabaiteko irtenbidea eman diogu, Musika eskola zaharra utzi digutenari esker. Azkenean orain daukagunarekin moldatu behar dugu eta espazioak ahal bezainbeste aprobetxatzen ditugu gelak bitan banatuz, eraikinaren sarrera jolasleku moduan erabiliaz, etab.

Ba al dago 0-2 urte bitarteko hezkuntza zentruaren inguruko berririk?

Eusko jaurlaritzatik patzuergo bat antolatu da udal haurtzaindegia zabalteko asmoarekin. Beraz, suposatzen da udaletxetik eskaera egingo dela herri-rirako, uste dut datorren urterako egingo dela. Orduan haurtzaindegia (0-2 urte bitarteko zentrua) udaletxearen ardurapekoa izango litzake eta guk 2 urte-tik aurrerako hezkuntzarekin jarraituko

genuke orainarte bezala. Gainera, gurea herri txikia izanik ere, behar beharrezkoa da horrelako zentro baten irekiera, adibidez emakume langileen kasuan edo bikotekide biak lanean dauden kasuetan.

Euskararen aldetik nola ikusten duzu ikastetxeko egoera?

Ezagutza maila esango nuke 100% dela, baina erabilerari dagokionez egoera kaxkarragoa da. Nahiz eta geletan dextente entzun, kale mailan ez da berdind gertatzen. Herri mailan ere ahalgin bat egin beharko litzateke. Ume guztiek euskara menperatzen dutela jakinda, esfortzu bat egin beharko genuke, ama hizkuntza erdara dutenak barne, ume-enganana euskaraz zuzentzeko. Etorkinen igoerak ere badu eragina gai honetan, nahi ta nahi ez euskara menperatzen ez duen ume bati erdaraz zuzentzen zaizkio gainontzeko umeak. Hala ere, gai horri ere heldu behar diogu, hortarako daukagu euskararen normalkuntza plana martxan. Zaila izan arren, plan honen ere bere fruituak emango ditu.

Telefona 75 24 09

ARRANO

tabernia

“Giro euskalduna eta sanua”

ETORRI ETA GOZATU

EUSSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

etxera

Instalaciones Kalebarren S.L.

GAS INSTALAKUNTZAK
ETA PROIEKTUAK
KALEFAKZIOA ETA AIRE EGOKITUA
ITURGINTZA OROKORREAN

20590 SORALUZE TEL. / FAXA: 943 75 23 07 ESKUKO TEL.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92
48017 DEUSTU TEL.: 944 75 99 60 POSTA ELEKTRONIKOA: KALEBARREN@INICIA.ES

Kiroldegia

Kirol eskeintza zabala Aranen



Irailarekin batera Arane kiroldegiak kirol eskeintza zabala jarri du aukeran;

igeriketa, aguagim (uretako gimnasia), aerobicka, mentenimenduko gimnasia eta adinekoendako gimnasia. Ikastarotetan izena emateko epea zabalik dago baina kiroldegiko arduradunek adierazi digutenez, "bizkor ibiltzia komeni da", dagoeneko ikastaro batzuetan ordezko zerrenda osatzeari ekin diote eta.

Bestalde, igerilekurako sarrera bonoen berri ere emen digute. Eguneko sarrera arruntak 3.3 euroko prezioa du baina 10 sarrerako bonoak 25 euro balio ditu.

Txirrindularitza

Mujika beasaindarra garaile



Abuztuaren 14an jokatu zen, jubenil mailako Soroluzeko 56. Sari Nagusia.

46 Txirrindularik hartu zuten parte eta 41 ek amaitu zuten 97 kilometroko ibilbidea.

Sailkapena honela geratu zen:



1. Asier Mujika (Caja Rural) (Beasaindarra) (2:11:09ko denborarekin)
2. Eneko Gurrutxaga (Okiako) (11 segundura)
3. Beñat Goia (Bruesa) (32 segundura)

Pelota

Unamuno eta Calles txapeldun



Aitor Unamuno eta Andoni Calles nagusitu ziren 22 eta 8ko emaitzaz, Portu I. eta Azkonaren aurka jokatu zuten finalean. Norgehiagoka hasi orduko erakutsi zuen bikote gazteak bere nagusitasuna eta askok uste baino erreztasun handiagoz lortu zuten partidua euren gaitasuna.



Sari banaketaren ostean, Oskar Jorge "Txipi" gogoratu zuten saminez (aurten auto istripu batean heriotzarekin topo egin duen txapeldun ohia), eta urtero moduan Euskal Presoen Euskal Herriratzea ere eskatu zuten Asier eta Inakiren Omenezko Txapelketaren aldarrikapen zentzua azpimarratuz.

Mendizaletasuna

Besaide Eguna 21ean

Datorren irailaren 21ean Euskal Herriko mendizaleek hitzordua dute Besaideko gainean. Soroluzeko Mendi Taldeak autobusa antolatu du.

Eskubaloia

Haritz Sudupe Zaragozan

Haritz Sudupe eskubaloia jokalaririk soroluzetarra Zaragozan dago, Espainiako ligako lehen mailako talde batek urtebeterako frogara moduan fitxatu eta gero. Dagoeneko entrenatzen dihardu burubelarri eta hil honen amaieran hasiko den ligan jokatzeko gogoz dago.

Futbola

Jubenilak zapatuan hasiko dute liga

Zapatu arratsaldeko 19:00etan ekingo dio Sorako jubenil taldeak Asier de los Rios entrenatzaile berriaren gidaritzapean, 03-04 denboraldiari Antiguoko taldearen aurka Donostian. Kadete eta erregionalek datorren astean hasiko dute liga, eta bi taldeok ere entrenatzaile berriak izango dituzte aurtentzen; Oskar Zarobe eta Fran Juan kadeteenak eta Recio erregionalarrena. Joseba Etxeberriarentzat ere lehen denboraldia izango da lehendakari moduan.

Laskurainek asko jokatu du udan

Aritz Laskurainek 2002ko udaberrian profesional maila pasa zenetik izan duen joko punturik onena harriatu du aurtengo udan.

Uda aurreko hilabeteetan eskuko minez ibili bazen ere, udarako erreku-peratu eta abuztuaren eta irailean zehar 10 partidua baino gehiago jokatzeko modua izan du. Azpeitia, Agoitz, Leitza, Mallabia, Azkoitia, Salamanca, Donostia, Zarautz, Plentzia... eta beste herri batzuetan jokatu du eta maila ona emateaz gainera, partiduetatik erdiak irabaztea lortu du. Momentu honetan gustora dago eta konfidantzaz. Ez omen dago sasoirik optimoenean eta poliki poliki gorantz joateko esperantza dauka. Ostiral honetan Legutianon jokatu du Del Rey eta Urberuagaren kontra Chaferekin batera. Asteazkenean berriz Altsasun. Zorte on!

Zigor Gallastegi

“Lanik egitteke diru nahikuakin bizitzia nahiko neuke”

Astelehen buruzurixa da, uda ostia. Iluntze aldera urten dogu kalera batenbat harrapatzeko asmoz eta han nun datorren Zigor Gallastegi. Grabagailua eta kamara ezkutatu eta berarengana hurbildu gara barrez barrez. Zeozer susmatu dau baina ez da atrebitu ihes egitten. Grabagailua etara dogunian ez da harritu eta zirti zarta erantzun ditu egin dotsaguzen galdera guztiak. Horrelako jende gehiago bihar dodu herrixan.

Izen abizenak, edadia eta lanbidia.

Zigor Gallastegi, 29 urte ta mekanikua
Gustoko menua.

Ensaladia, txuletia eta edateko arda
beltza.

Zenbakixa, tokixa, koloria eta musika taldia.

7xa, soziedaderen bat, beltza eta
Gozategi.

Zelakua zara?

Txikixa naiz.

Afiziñoren bat?

Bizikletan ibiltzia asko gustatzen jata.

Nun ibiltzen zara?

Hemen inguruan. Lehen karreretan be
parte hartzen neban, baina oin edadia
be aurrera doia ta...

Asteburu baterako planen bat proposauko al dotsezu Pil-Pileaneko irakurlieri?

Barixakuan Riojara juan, zapatuan bizikletan ibiltzera urten ta gero parrandatxo bat. Domekan berriz, bazkaldu ta etxera bueltau.

Marrazki bizidunetako pertsonai bat Shin Chan, bihurrixa da ta.

Zer bihar dau neska batek zuri gustatzeko?

Ez dao neska zatarrrik, jatorra bada ondo.

Oporretan nun egon zara?

Europa aldian. Kroazia, Errumania, Hungaria eta Eslovenia bisitau dittut.

Eta zer da berriz be lanera bueltatzian txarrena?

Goizian goiz jaiki biharra.

Desio bat.

Lanik egitteke diru nahikuakin bizitzia nahiko neuke.

Herrixan zeini jarriko zontzake monumentu bat?

Bertso Begiz

*Gorputz handia ez dauka baina
mutil haundia da gero,
neska jatorrak atsegin dittu
ardau beltza be bai bero.
Lan egin bare bizi,
ez dau eskatzen gitxi.
Ez dozu gutxi espero,
monumentua eingo dotsugu
formula lortu ezkeru.*

Eneko Beretxinaga

(Doinua: Iparragirre abila dela)

Zigor Gallastegi

*“Barixakuan Riojara juan,
zapatuan bizikletan
ibiltzera urten eta gero
parrandatxo bat.
Domekan berriz, bazkaldu
ta etxera bueltau”*

Herrixan ez dao monumentorik merezi dabenik, bestela be nahiko famosuak gara ta.

Amaitzeko, anekdotaren bat kontauko al dozkuzu?

Behin Gilako zubittik nindoiala, gizon bat Elgeta, Elgeta hasi jatan deika. Nik ezezku esanda be harek beriak jarraitzen zeban, ni Iakes nintzalakuan. Izan be batek baino gehixaok konfundidu nau berakin.

EDURTZA Kafetegia

Taberna eta jatetxe zerbitzua

**Eguneroko
menua eta
pintxoak**

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

JAVIER ALONSO ZELAIETA

434 ZENB.KOL

**HORTZ
KLINIKA**

MEDIKU ESTOMATOLOGOA



ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613

Argazki zaharra



1960. urteko jaialdia Soraluze Zinian

1 960. urtean Soraluzeko zinian ospatutako jaialdian etaratako argazkixa da hau. Bertan Ramiro Larrañaga, Juan Mari Altuna eta Eustaki Maiztegi agertzen dira, musika eta kantu emanaldi bat eskeintzen.

Emilitak utzitako argazkia.

Lehiaketa

Zein da argazkixan agertzen dan basarrixa?



Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke!!

DEITTU

943 75 13 04 ra

Aurreko irabazlea: Belen Oruesagasti
Erantzuna: Haritza -Etxetxo



SAN ANDRES Iturgintza

*Iturgintza, Gasa, eta
Berogailuak
Sukaldeak eta bainuak*

Errebal kalea 2 behea
Tfnoa 943 75 16 46

GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!

Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34



TXOKO KAFETEGIA



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarreri 22 behea, telf: 943751780



Hnos. BENITO ANAIAK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

"Gazte Txartela Euskadiko Kutxan Bakarrik!"



Eska ezazu zure
Gazte-txartela eta
%50raino deskontuak
izango dituzu
Autonomia Elkarre
guztietan eta
Europako gainerako
herrialdeetan.

Santa Ana, 18
Telefona: 943 751 238
Faxa: 943 753 103
20590 Soraluze/ Gipuzkoa

Zurekin elkarlanean


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Soraluzeko bertso paper lehiaketa

- 1.- Lehiaketa honetan Soraluzen jaio edo bizi den edozein bertsozalek parte hartu dezake.
- 2.- Partehartzaileen artean bi maila bereiztuko dira adinaren arabera:
A maila: 18 urtetik beherakoak.
B maila: 18 urtetik gorakoak.
- 3.- Lanak ordenagailuz eta euskaraz idatziak izan beharko dute. Lanaren bi kopia aurkeztu beharko dira.
- 4.- Gaia librea izango da.
- 5.- Lanari erantsitako kartazalaren gainean, bertsoaren izenak eta egilearen goitizenaz azaldu beharko dira eta barruan egilearen datuak: izen abizenak, adina, helbidea eta telefonoa.
- 6.- Lanak nora bidali:
Pil-Pilean Kultur Elkarteko Udaletxepeko buzoian bota edo pilpilean@euskalnet.net helbidera bidali.
- 7.- Aurkezteko epea: Irailaren 15ean hasi eta 20 arte luzatuko da.
- 8.- Sariak modu honetan banatuko dira:

A mailan


- 1.Saria: 50€, txapela eta bertso afarirako bi gonbidapen.
- 2.Saria: 25€ eta bertso afaria.
B mailan
1.Saria: 60€, txapela eta bertso afarirako bi gonbidapen.
2.Saria: 40€ eta bertso afaria.

- 9.- Partehartzaile bakoitzak sari bakarra jaso dezake. Epahimaikideak horrela eritziz gero, sariren bat banatu gabe gera liteke.
- 10.- Epaileak Deba bailarako bi bertsolari eta Soraluzeko euskara teknikaria izango dira.
- 11.- Saritutako bertso paperen berri Urriaren 27an emango da komunikabideen bitartez eta pertsonalki saridunei.
- 12.- Sari banaketa Urriaren 31an, gaueko 21:30etan herriko jatetxe batean egingo den bertso afarian egingo da. Sarituek beraien lanak abestuko dituzte bertan.
- 13.- Lehiaketan parte hartzeak aipatutako oinarri hauek onartzea eskatzen du.



SORALUCE

Fresaketa teknologia



SORALUCE
GRUPO DANOBAT

SORALUCE S.Coop. • Osintxu auzoa • P.O.Box. 90 • E-20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Tel. +34 943 769076 • Fax: +34 943 765128 • Web: www.soraluce.com

SORALUZEKO

aek

EUSKALTEGIA



*Matrikula
irailaren 10ean
hasita*



Eskeintza:

- **Euskara eskolak maila guztietan, EGA eta abar.**
- **Prezio bereziak: guraso, ikasle eta langabetuentzat.**

ikasi, edonola egin dezakezu

**euskara ikasteko baina,
hobe duzu aek-ra etorri**



aek

izena eman

Fron toi kalea 5 (Maisuen Etxea) Tel.: 943 75 14 34